



Topaketa erraldoia

EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Zabalik dago ENTITATEEK EUSKARALDIAn izena emateko epea!

Udala, Udalaren ardurapekoak eta bestelako erakunde publikoak
Bestelako entitate publikoak
Hezkuntza
Elkarteak eta gizarte mugimenduak
Merkataritza eta ostalaritza
Industria eta enpresa mundua

Izena eman eta *ariguneak* sortzea izango da entitateen egiteko nagusia.

Ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak dira, eta bi baldintza bete behar dira *arigune* bat sortzeko:

- Gune edo talde horretako kide guztiek ulertu behar dute euskara.
- Kideen gehiengoak nahi izan behar du *arigunea* sortzea.

Bigarren edizioan Elgoibarren 104 entitatek eman zuten izena eta 419 *arigune* sortu ziren.

EUSKARALDIA ariketa sozialean izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko:

elgoibar@euskaraldia.eus / 943 741 626



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



twitter.com/barreneus



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Alex Segade

Kazetaria

Automobilgintzaren aro berria



“Errekarga puntu ugari falta dira eta hori auto elektrikoaren zirkulazioa errazteko funtsezkoa da”

2035. urtean gasolina eta diesel auto berrien salmenta debekatu egingo dute. Pasa den astean Europako Batasunak erabakia hartu zuen, erabaki finkoa, gainera. Nola ez, eztabaida handia sortu da neurri honen inguruan, eta niri hainbat zalantza sortu zaizkit:

Lehen, ea prest egongo garen 13 urte barru auto elektrikoetara pasatzeko. Momentuz argi dago ezetz. Azpiegitura mailan behintzat oso urruti gaude. Errekarga puntu ugari falta dira eraikitzeko, eta hori auto elektrikoaren zirkulazioa errazteko funtsezkoa da. 2035ean egoera ezberdina izan daiteke, baina aldaketak orain hasi behar dira egiten.

Bigarren zalantza: zer prezio izango dute auto elektrikoak 2035ean? Gaur egun auto elektriko bat erostea oso garestia da, ahalegin ekonomiko handia egin behar da. 2035era heltzen garenean merkeagoak izan beharko lukete, eta horretarako maila handi batean ekoiztu behar dira elektrikoak. Orain, material faltagatik autoen ekoizpena, orokorrean, oso baxua da. Merkeagoak ez badira, auto berri bat izatea luxua izango da, gutxi batzuen eskura soilik egongo dena.

Hirugarren zalantza: Gasolina eta diesel autoak ezingo dira erosi, baina bai erabili. Ez dakigu oraindik zenbat urtetarako, ezta hauen zergak igoko diren ala ez. Ziur nago gasolina eta diesel autoak erabiltzeagatik zergak ezarriko dituztela, eta gasolinaren eta dieselaren gaineko zergak ere igoko dituztela. Horrela auto elektrikoetara aldatzera behartuko gaituzte, jasanezina izango delako gasolina edo diesel auto bat mantentzea. Gainera, ikusi beharko dugu zein prezio duen gasolinak. Orain jada izugarrikoa da.

Dena delakoa, 2035. urtea oso urrun dago. Bidean beste bi pandemia izan ditzakegu (espero ezetz, noski), beste lau gerra... eta egoera guztiz ezberdina izatea. Hala ere, gauza bat argi dago: 2035ean automobilgintzaren aro berri batean sartuko gara.

*BARRE*nek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Legearen aplikazioa, orain!

Hilabete honen hasierako albistea izan da: Europako Giza Eskubideen Auzitegiak berretsi egin du orain dela hilabete batzuk emandako epaia, hots, atxilotuak eskubidea duela abokatu baten asistentzia jasotzeko, atxilotua den une beretik. Eskubide hori errespetatua izan behar da epaile aurrera eraman arte. Estatu espainiarrean, eta Lege Antiterroristapean, milaka izan dira defentsarako eskubiderik gabe gelditu direnak, tartean egun espetxean dauden preso gehienak. Logika honen baitan, inkomunikazioaldian, defentsarik gabe eskuratutako frogetan oinarritutako zigor guztiak baliogabekotzat jo behar lirateke.

Espainiako estatua zigortua izan da eta berari dagokio sortutako eskubide urraketa erreparatzea. Beraz, Estatuko auzitegiek egoera hau konpondu beharko lukete eta irtenbide juridiko egokia eman, urraketa hau jasan duten presoek.

Gaur, ostirala, iluntzeko 20:00etan, eliza atarian elkartuko gara, udaletxe azpia okupatua egongo delako. Han espero zaituztegu!

Sare Elgoibar

#FreePablo

Pablo Gonzalez Yagüe (Nabarniz, Bizkaia) euskal kazetaria Polonian atxilotuta daukate, 87 egun daramatza preso. Maiatzaren 29an amaitzen zitzaion behin-behineko espetxealdia Errusiako espioi izatea egotzita. Aste honetan ordea, Prezemsyl eskualdeko epaitegiak Pablari behin-behineko espetxealdia beste hiru hilabetez luzatzea erabaki du. Ondorioz, Pablo baldintza beretan mantenduko dute, bisitarik edo senideei telefono deirik egiteko eskubiderik gabe. Epaiketarako data zehatzik ez dago oraindik eta hamar urteko espetxe zigorra du jokoan. Agerian geratzen da Europako Batasuneko kide gisa derrigor errespetatu behar lituzkeen eskubide ugari urratu dizkiola Poloniak.

Kazetaritzaren sektorean egonezina eragin du Gonzalezen atxilotetak, eta ehunka kazetarik (Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko kazetari askok, Europako Kazetarien Federazioak edo Mugarik Gabeko Kazetariak) eskatu dute argitu dezatela gertatutakoa eta berehala utz dezatela aske. Amnistia Internazionalak ere exijitu du bere familiarekin harremanetan jartzeko eskubidea errespetatzeko eta bermatu dezatela epaiketa justua izango duela. Polonian atxilotutako Pablo Gonzalez kazetariaren eskubideak errespetatzeko sinadura bilketa martxan dago change.org webgunean. Informazio gehiago: freepablogonzalezorg.wordpress.com eta twitter.com/FreePabloGonz-en.

Z.A.



I.URTEURRENA

Carmen Bastarrika Agirrezabal

2021eko maiatzaren 31n hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, Domekan, maiatzaren 29an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

***Zuk beti zure onena eman diguzu,
maitte zaittugu, amama.
Milla muxu.***





Zuen kegak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Lekuederreko soken gunea itxita egon da berriz:

"Nola da posible hainbeste aldiz hondatzea Lekuederreko soken gunea? Gurasooi kezka handia sortzen digu. Izan ere, umeeek oso gogoko dute soka horietan ibiltzea, baina hainbeste aldiz hondatzeak beldurra ematen digu, eta zalantzan jartzen du jolasaren segurtasuna. Azkenaldian askotan egon izan da itxita, eta konpontzen duten arren ez du asko irauten. Horretarako agian hobe litzateke beste zerbaite jartzea".



Gabriel Krutzelaegiko igogailua hondatuta dago barrutik:

"Toletxe kaletik Gabriel Krutzelaegi kalerako igogailu publikoak mantentze-lanak egiteko beharra dauka. Barruko aldea hondatuta dauka, bereziki lurra. Eskertuko genuke gure auzoan ere hobekuntza-lanak egitea".



Txalo bat Azkueko erromeria antolatu zutenei:

"Familientzako erromeria antolatu zuten Atxutxiamaikak, Musika Eskolak eta Udal Ludotekak eta sekulako giroa sortu zen Azkueko berdegunean. Ume zein helduak dantzan jarri zituzten, eta bariku arratsalde ederra pasatu genuen. Horrelako ekimen gehiago egin beharko lirateke. Zorionak antolatzaileei".



Hezkuntza Mahaia osatu dute Elgoibarko Udalak eta Hezkuntza komunitateak

Elgoibarko Udalak eta herriko hezkuntza komunitateak Elgoibarko Hezkuntza Mahaia sortu dute, elkarlana ahalbidetuko duen hezkuntza partaidetza-egitura iraunkorra sortzeko, elkarbizitza osasuntsua eta inklusiboa hobetzeko eta hezkuntza beharrak identifikatuz, erantzun bateratu bat emateko. Era berean, hezkuntza formala eta ez formala uztartu nahi dituzte, udal mailan hezkuntza beharrei era kohesionatuan erantzun eta elkarlanean eta konfiantzaz Elgoibarko hezkuntza komunitatea indartu eta sustatzeko. Erronken artean, ondorengoak zehaztu dituzte: haurren kapital kulturala eta soziala indartzea, egon daitezkeen ezberdintasunak orekatuz eta inklusioan aurrerapausoak emateko; aisialdiak ematen dituen aukerak baliatzea, modu integratuan eta orekatuan landuz; eta komunitatean haur guztien parte-hartzea ahalbidetzea Elgoibar herri



integratzaileagoa egiteko eta herritar aktiboak izan daitezela sustatzeko.

Hezkuntza Mahaiaren parte dira Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailaren zinegotzia eta teknikaria, Kirol Patronatuaren Lehendakaria eta Zuzendaria, eta Herri Eskolako, Elgoibar Ikastolako, Musika Eskolako, Udal Ludotekako eta Atxutxiamaikako ordezkariak.

'Osasuna eta elektromagnetismoa' hitzaldia emango du Asier Arregi geobiologoak gaur, Mendaron

Asier Arregi nekazal ingeniari eta geobiologoak, *Osasuna eta elektromagnetismoa 5Garen denboretan* izeneko hitzaldia emango du gaur Mendarokofrontoian, 19:30etik aurrera. Nekazaritza ingeniaria da, uhin elektromagnetikoetan aditua eta Lau-Buru Teknologiako zuzendaria. Uhin Elektromagnetikoak, 5G teknologia, etxeetan

dauzkagun gailuen kutsadura... Zer gertatzen ari da? Zerez inguratuak gaude eta nola babestu gaitezke? Zein izan da erradiazio elektromagnetikoaren eboluzioa gizarte modernizatu eta teknologizatu honetan?. Horiek eta antzerako beste gaien eta zalantzen inguruko solasaldia izango da.

Azken zapatuko feria bihar, pandemia aurreko egoeran



Maiatzeko azken zapatuko feria egingo dute bihar, Debemenek eta Udalak antolatuta, eta pandemiaren etenaldiaren ostean, txosna eta umeentzako tailerrak berreskuratuko dituzte. Atabal elkarteak jarriko du txosna oraingoan, eta 11:00etatik aurrera txahal saheski pintxoak salduko dituzte. Ordu berean, 'Ortua etxean' tailerrak egingo dituzte Atxutxiamaikako hezitzaileek, eta umeek piperrak landatzen ikasiko dute. Goizean zehar, baserrietako produktuak erosteko aukera ere egongo da.

Gizarte politikak izango ditu hizpide Maite Peña diputatuak egunean Elgoibarren



Maite Peña Gipuzkoako Gizarte Politiketako diputatua (Errenteria, 1975) ekarriko du EAJk ekainaren 2an Elgoibarrera. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian emango du hitzaldia, 18:30ean hasita. Gizarte politiketz hitz egingo du. EAJk antolatu duen hitzaldi sortako bigarrena izango da Peñarena. Joan zen egunean Jokin Bildarratz Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua izan zen Elgoibarren, Hezkuntza Lege berriaz hizketan.

Etxean energia aurrezteko moduez jardungo dira Jubilatuen Biltokian

Etxean energia aurrezko dauden moduak aztertuko dituzte ekainaren 1ean Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko erabilera askotariko gelan, 17:00ean hasita. Kontsumobidek, Elgoibarko Udalak eta Jubilatuen Biltokiak elkarlanean antolatu dute hitzaldia, eta kontsumobideko teknikariak emango du hitzaldia. Besteak beste honako kontu hauen inguruan arituko da: kontsumo eraginkorra etxean, etiketa energetikoa, ohiko gastuak eta etxe hornidura, hornitzaileen kontratazioa eta fakturen berrikuspena.

Jende ugari ibili da Mendaroko Bigarren eskuko azokan



Merkataritza Eguna ospatu zuten zapatuan Mendaron, eta egun horren harira bigarren eskuko azoka egin zuten, frontoian. Guztira 23 erakusmahai jarri zituzten Udaletik jakinarazi dutenez eta tartean mendaroarrenak ere baziren. Hasteko, herriko bi komertzioak atera zituzten beren produktuak kalera: Leire jantzi-dendak eta Galle-tiak, baina ez ziren komertzio horietakoak izan azokan parte hartu zuten mendaroar bakarrak. Izan ere, zenbait herritarrek ere atera zituzten arropak, liburuak eta bestelakoak saltzera, eta tartean baziren baita beren marka propioa sortu duten herriko hiru artisau ere: Maddi, Lo&Ge eta Lukenka.

'Mendaron bizi eta erosi' kanpainako zozketa

Azokaren harira, *Mendaron bizi eta erosi* udaberriko kanpainako zozketa ere egin zuen Udalak. Apirilaren 20tik maiatzaren 19ra herriko establezimenduetan egindako erosketen truke txartel bat banatzen aritu dira eta zapatuko azokan ere banatu zituzten txartelak, erosketa bakoitzeko. Kanpainan, produktuz osatutako hiru saski zozkatu zituen Udalak zapatuan eta hauek izan dira zenbaki saridunak: 01548 / 03576 eta 03796. Maiatzaren 30a arteko epea izango dute zenbaki saridunen jabeek udaletxera joan eta otarra jasotzeko (8:30etik 14:00etara). Agertuko ez balira ordezkokoak sartuko lirateke jokoan: 04895 / 00239 eta 03948. Argazkiak: barren.eus

Karakaten bi haize errota eraikitzeko asmoaren kontra egin du Elgoibarko Udalak, aho batez

Karakaten bi haize errota ezartzeko Green Capital Development 135 enpresak agertu duen asmoaren kontra egin du Elgoibarko Udalak aho batez, Karakate Bizirik plataformatik egindako eskaerarekin bat eginez. Izan ere, eta Karakate Bizirik plataformatik adierazi bezala, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) Karakate-Irukurutzeta mendilerroko Elgoibarko magala natura-intereseko gune izendatua dago eta HAPON bertan zehaztuta dago parke eolikoak jartzea debekatua dagoela. Era berean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen-dokumentuan ere jasota dago debekua, Karakateko gailurrerako eta Elgoibarko eta Soraluzeko mendi-magaletarako. Karakaten hainbat elementu megalitiko daudela

gogorarazi dute eguazteneko osoko bilkuran onartutako mozioan eta egon daitezkeela aurkikuntza gehiago ere. Horregatik, proiektu horren kontra agertzeaz batera, bi hilabeteko epean Karakateko Parkea Antolatzeke Plan Berezia idazteko konpromisoa hartu du Udalak, "udal-plangintzan jasotako zehaztapenak gehiago zehazteko". Plan horren helburua inguruko elementu naturalak eta megalitikoak babestea eta balioestea izango da. Era berean, Dolmenen Ibilbidea babesteko eta sustatzeko konpromisoa berretsi du Udalak, eta horretarako, udalerrri mugakideekin hitzarmenak sinatu eta ibilbidea promozionatuko duela aurreratu du, bai eta estrategia horren barruan egiten diren arkeologia-prospekzioak diruz lagunduko dituela ere.

Saioa Iraolak eta Ekhine Eizagirrek irabazi dute Gotzon Garate beka



Saioa Iraola Urkiolari eta Ekhine Eizagirre Zubiaurreri esleitu die Elgoibarko Udalak Gotzon Garate beka aurten. Elgoibarren bizi diren jatorri atzerritarreko lagunek euskararekiko eta euskal kulturarekiko dituzten pertzepzioak aztertuko dituzte haiek, bai eta hizkuntz integrazioan laguntzeko alorrak identifikatu ere, etorkizunean egin daitezkeen esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko gakoak identifikatzeko. Iraolak eta Eizagirrek 10.000 euroko dirulaguntza jasoko dute eta zortzi hilabete izango dituzte lana aurkezteko.

Zientziaren eta teknologiaren alorrean egindako lanak plazara atera dituzte



Elgoibarko ikastetxeek eta ikasleek zientzien eta teknologiaren alorrean egiten duten lana eta gauzatu dituzten proiektuak jendeaurrean erakutsi zituzten zapatuan, Zientzia Azokan eta asko izan ziren Lekuederren jarri zuten karpata hurbildu ziren herritarrek. Zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzea eta gizartearen kultura zientifikoa handitzea zituen helburutzat azokak, eta herritarrek emandako erantzunarekin gustura agertu dira antolatzaileak. Guztira, 38 postu egon ziren.

Eskola-umeek udaletxeetara eraman dituzte beren eskaerak, Eskolako Agenda 30 egitasmoaren barruan



Debegeak udalekin batera antolatutako Eskolako Agenda 30 egitasmoaren barruan, beren eskaerak udaletxera eramateko aukera izan dute Elgoibarko eta Mendaroko eskola-umeek. 2021-2022 ikasturtean lehorreko ekosistemetako bizitza izan dute hausnarketagai eskualdeko ikasleek, eta gaiarekin lotutako hainbat ekintza gauzatu dituzte ikastetxeetan. Behin egoeraren diagnostikoa eginda, ikasleek ordezkaritzek udalbatzarrera eraman dituzte beren eskaerak eta proposamenak. Elgoibarko ikasleek hainbat proposamen egin zituzten udaletxean, eta hauek dira Udaletik azpimarratu dituztenak: bertako espezieen alde egitea; ingurumenarekin lotutako ekintzak antolatzea; gune berde gehiago sortzea herrian eta Udalak gune ezberdinetan txorrientzako habiak jartzea. Mendaroko kasuan, berriz, honako eskaerak

izan dira "aipagarrienak": Mendaroko animalia eta landare inbaditzaileen kontrako plan bat zehaztea; dirulaguntzak ematea baseritarrei hemen bertako arbolak landatzeko eta beraien lur-sailak garbitzeko; zuhaitzetan txorrientzako habiak jartzea eta hiru hilabete behin Mendaroko garbitzeko ekintzak antolatzea.

Debegeak hogeitau urte daramatza egitasmo hau sustatzen eta koordinatzen, helburu hauekin: ikastetxeak ingurumen eta gizarte jardunbide egokien eredu bihurtzea, ingurumen eta gizarte-arazoak identifikatzeko eta horiei konponbidea emateko gai diren ikasleak hezteko eta partaidetza eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen duen hezkuntza bermatzea. Guztira, 25 ikastetxe eta 8.000 ikasle baino gehiago ari dira parte hartzen egitasmo honetan Debabarrenean.




*“Ikaslea erdigunean
jartzea da
Hezkuntzaren erronka
nagusienetarikoa”*



JOKIN BILDARRATZ

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailburua

 Ainhoa Andonegi

Jokin Bildarratz Sorrón (Tolosa, 1963ko) EAJko politikaria da. Tolosako alkatea izan zen bi legegintzalditan (2003-2011) eta baita EUDEleko presidentea ere. Espainiako Senataria izan zen 2016tik 2019ra bitartean, eta 2020ko irailetik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburua da. Joan zen astean Hezkuntza Lege berriari buruzko hitzaldia eman zuen Elgoibarren. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izan zen ekitaldia, eta jende asko batu zen, udazkenean onartu nahi duten lege honek ekarriko dituen aldaketen nondik norakoak ezagutzeko.

EAJk, EH Bilduk, Elkarrekin Podemos-IUK eta PSE-EEk onetsi dute hezkuntza ituna. Nola baloratzen duzu akordio hori?

Hezkuntza mundutik nator, eta hezkuntzan beti eman izan zaio garrantzia adostasunari. Beraz, argi ikusi genuen Gobernua osatzen genuen alderdiez gain, saiatu behar genuela besteengana iristen eta akordio zabalago bat lortzen. Seguruenik ez da egongo gizartean hezkuntzak beste garrantzia duen gairik. Osasuna edo ekonomia ere oso alor mardulak dira, baina hezkuntzaren egitekoa da pertsona onak hezte, elkarrekin biziko diren pertsonak eta profesional onak izango direnak; alegia, mediku onak, ekonomilari onak edota mekanikari zein elektrikari onak. Ez da erraza izan, alderdi politikoen artean harremanak ez direlako konplizitate-harremanak, baina politiki-poliki, bakoitzak berea mahai gainean jarriz eta leialtasunez lortu dugu akordioa, zeinak bi atal dituen: batetik, etorkizuneko balizko legearen oinarriak daude, eta bestetik, datozen 12 urtetan Hezkuntzak jarraitu beharreko bidearen irizpideak. Nire ardura orain da Legebiltzarrak onartu duen dokumentua lantzea, eta alderdi politikoekin mantendu beharreko leialtasuna, konplizitatea eta elkarlana mantentzea.

Legebiltzarraren %90 batek begi onez ikusi du ituna eta alderdi politikoen onespina badu, baina STEILASetik (Hezkuntzan gehiengoa den sindikatutik) ohartarazi dizuete hori bezain garrantzitsua dela hezkuntza eragileekin adostasunak bilatzea. Zer duzu esateko?

Beraiekin ere lan egin beharra dago. Hemen garrantzitsuena da itunak baduela legebiltzarraren %90aren onespina, baina orain tokatzen zaigu beste hainbat eragilerekin egotea, haiei entzutea, gure azalpenak ematea eta adostasunera heltzea. Hemen aipatu nahiko nuke egon zela hezkuntzarako greba deialdi bat, baina testua aurkeztu zenean bertan behera utzi zutela. Beraz, horrek esan nahi du testu hori ez dela hain deserosoa eta badaudela elementu batzuk beraientzako ere erakargarriak izan daitezkeenak. Akordioa zabaltzeko lanketa egingo dugu.

Zeintzuk dira hezkuntzaren erronka nagusiak?

Ikaslea izatea gure ardatza eta iparra; norabidea. Ikaslea erdigunean jartzea da erronka nagusienetarikoa. Bestetik, ikastetxeak

"Garrantzitsuena da itunak baduela Legebiltzarraren %90aren onespina, baina orain tokatzen zaigu beste hainbat eragilerekin egotea, haiei entzutea, azalpenak ematea eta adostasuna lortzea"

ahalduntzea. Gure babespean 1.222 ikastetxe dauzkagu, era askotakoak, eta lortu behar dugu bakoitza ahalduntzea, zuzendaritza edo zuzendariaren figura indartuz. Horrez gain, hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa behar dugu, eta hemen gurasoak oso garrantzitsuak dira. Irakaslearen hasierako formazioa eta bitzta osorako formazioa ere elementu garrantzitsuak dira, eta alor horretan erreforma bat jarriko dugu martxan, irakasleagoa formatu dadin. Euskararen eta beste hizkuntzen arteko orekaren gaia ere hor daukagu, eta aztertu beharko dugu nola indartu hizkuntza-proiektuak ikastetxeetan. Aipatu dut lehen ikastetxeak ahaldundu egin behar direla, eta horrek esan nahi du ikastetxe bakoitzak eduki behar duela bere hezkuntza-proiektua, eta horren barruan, hizkuntza-proiektua ere bai. Hizkuntza-proiektu horrek ikastetxe bakoitzaren errealitateari erantzun behar dio, desberdina delako Gipuzkoako, Bizkaiko edo Arabako ikastetxeetako euskararen errealitatea. Gobernantza deszentralizatua ere elementu garrantzitsua da guretzat; hau da, nola sartzen den udaletxeen figura. Aspektu horretan Elgoibar eredugarria da, eta dagoeneko osatuta dago hezkuntza-batzordea, eta herriko ikastetxeak Udalarekin elkarlanean ari dira hainbat gauzatan. Hezkuntzak eta udalek gune amankomun asko dituzte, euskararen gaia esaterako, segregazioarena... Horiek elkarrekin lantzea ezinbestekoa da.

Zeintzuk izango dira Hezkuntza Lege Berriak ekarriko dituen aldaketa nabarmenenak?

Lehenik eta behin esan nahi dut egun daukagun legeak ia 30 urte dituela; 93koa da. Egoera holistikoago bat ekarriko du, jasoko dituelako sistema osoko ikastetxeak, baldin eta balore batzuk betetzen badituzte lege berri honen baitan. Azken batean, lege berriak gertuko

erantzun bat emango dio ikasleari, ikastetxearen ahalduzko prozesu baten bitartez.

Sare publikoaren eta itunpekoaren arteko dikotomia gainditzea izan da hasieratik jarritako helburu nagusietakoa. Lortuko al da?

Hori prozesu bat da eta ez da gauetik egunera gaindituko, baina argi daukagu zerbitzu publiko bat eman behar dugula, ikuspegi juridiko desberdinak eduki arren. Horrek esan nahi du ikaslegoari erantzun behar zaiola, nahiz ikastetxea publikoa edo itunpekoa izan. Oreka zaindu behar da, alegia, ikastetxe guztiek erantzun beharko diote lurralde horretako zaugarritasun egoerari proportzio berean. Hau da, ez da posible ikastetxe batek zaugarritasun handiagoa edukitzea besteak baino. Lege honek garrantzia emango dio zaugarritasun hori orekatzeari, eta horretarako ezinbestekoa da Udalak ere inplikatzeko. Kontuan hartu behar da ikasleak ikastetxean bere denboraren %8 eta %15 bitartean pasatzen duela. Horrek esan nahi du ordu asko ematen dituela ikastetxetik kanpo, etxean, kalean, hezkuntza ez arautuan... horregatik garrantzitsua da musika eskolan, kirolean edota aisialdian ere lanketa egitea. Heziketa integral batean, herriko ume guztiak elkarrekin giza legez bizi daitezen lortu behar dugu.

Jaiotze-tasa behera doa, eta hemendik urte batzuetara, Elgoibarren bertan eta beste zenbait herritan ere, ikastetxe bakarrarekin nahikoa izango dela uste dute hezkuntzako hainbat eragilek. Itunpekoen ala publikoaren alde egingo du kasu horretan Hezkuntza Sailak?

Ez da bata ala bestea. Gauza asko hartu behar dira kontuan; hasteko, gizarteak berak zer nahi duen, baina egokiena izango litzateke biek erantzutea herriak dituen beharrei, ardura berekin. Nolabait esateko, diru publikoarekin kontatuko duten ikastetxe guztiek erantzun beharko diote sistemari, era berdinean. Ikusiko dugu datozen urteetan nola garatzen den gizartea, zer gertatzen den jaiotze-tasarekin, eta horren baitan hartuko dira erabakiak, baina beti izango da lankidetzaren landuz.

Segregazioa aipatu duzu lehenago. Zer dakar lege berriak ikasleen matrikulazio orekatu ziurtatzeko? Nola bermatuko da inklusioaren printzipioa?



"Herriak dituen zaugarritasun guztiak kontutan hartuta, modu berean erantzun beharko diete herriko ikastetxeek"

Erkidego osorako plan bat prestatzen ari gara hori gainditzeko, Katalunian egin duten antzera. Neurri asko hartu dira horretarako, baina hein batean izango da herriaren zaugarritasun egoerari herriko ikastetxeen artean erantzutea, Elgoibarren kasuan, bi ikastetxeen artean. Aztertu beharko da zein den egoera eta nola erantzun ahal izango zaion. Ez dira atzeritarrak soilik hartzen kontuan; badaude baita ere behar bereziak dituzten ikasleak edo gaitasun handia dutenak... ikuspegi asko hartu behar dira kontuan eta bi ikastetxeek erantzun beharko diete behar horiei ardura berdinekin. Zaugarritasun guztiak kontuan hartuta, modu berean erantzuniko diete herriko ikastetxeek. Horretarako hainbat neurri hartuko dira, besteak beste, matrikulazioarako gune bakarra jarriko da herrian. Etorkizunerako ezinbestekoa da giza kohesioa jorratzea.



"Gizarteak hainbat balorearen aldeko apustua egin du, eta horiei erantzungo dieten irizpideak betetzea izango da diru publikoa jasotzeko baldintza"

gaztelaniaz B2 maila eduki beharko dute ikasleek, eta gutxienez hirugarren hizkuntza batean, B1. Hori lortzeko neurriak jarriko dira, eta ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuak hizkuntza-proiektuari erantzun beharko dio.

Finantziazioaren harira ere jaso dituzue kritikak. EHIGEK salatzen du ikasleak sexu eta maila sozio-ekonomikoaren arabera aukeratzin dituzten ikastetxe pribatuak finantziazioa jasotzen jarraitzen dutela, interes partikularrak gizartearen gainetik ipiniz. Zeintzuk izango dira zentro pribatuak bete beharko dituzten baldintzak eskola kontzertatu izateko eta dirulaguntza publikoa jasotzeko?

Legebiltzarrak zehaztu zituen horiek eta besteak beste, berdintasuna genero ikuspegitik, laiktasuna... Gizarteak hainbat balorearen aldeko apustua egin du, eta horiei erantzungo dieten irizpideak betetzea izango da diru publikoa jasotzeko baldintza. Adibidez, legebiltzarrak jarri duen baldintzetako bat izan da sexu bereizkeria ez laguntzea diruz. Egia da baldintza horiek gero legedia aplikatuta bete beharko direla, eta gerta daiteke baldintza horietakoren bat legez bete ezin ahal izatea. Sexu bereizkeriaren kasuan uste dut VOX-ek Lomloe legea errekurrituta duela, eta konstituzioak horren kontra egingo balu, agian behartuta geundeke beste erabakiren bat hartzera. Baina printzipioz, onartu dena da diru publikoa jasoko duten ikastetxeek balore oso antzerakoak izan behar dituztela.

Ume euskaldunak segregatuta daude ikastetxe askotan atzerritarrek euskalduntzeko, baina ikusi da euskaldunak erdalduntzen direla modu horretan. Zer planteatzen du Hezkuntza Lege Berriak euskara eta euskaldun identitatea indartzeko?

Ez da bakarrik kontuan hartu behar ikastetxeak egoera horri ematen dion erantzuna, baita ere kontuan hartu behar da nola lantzen den euskararen normalizazioa ikastetxetik kanpora. Kirolean, esaterako, monitoreak euskaldunak diren ikusi behar da, musika edo dantzako irakasleak... hemen ere erakunde ezberdinen arteko elkarlana ezinbestekoa da.

Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ikasleek zein hizkuntza-gaitasun izatea da helburua?

DBH amaitzen dutenerako euskaraz eta

Zer gertatuko da itunpeko ikastetxeetako kuotekin?

Desagertu egingo dira; legeak ezartzen duelako hezkuntzak doakoa izan beharko duela, eta horretarako baldintzak jarri behar dira. Legebiltzarrak onartu duen itun horretan horrela dago jasota, eta doakotasuna da helburua. Gainera, esan dugu segregazioa bukatu nahi dugula, eta kuotak mantenduko balira, ez litzateke posible izango segregazioa gainditzea. Kuotak berak bereizketak egiten ditu ikasleen artean; beraz, lege berriarekin ezingo dira kobratu. Hezkuntza Sailak %100ean finantzatzen dituen zerbitzuak ezingo ditu kobratu ikastetxeak, eta funtzionamendua %100ean finantzatuko da. Ikastetxe batek zerbait kobratu nahiko balu, baimena eskatu beharko lioke Hezkuntza Sailari eta hori publikatu egingo genuke, argi eta garbi

*"Kuotak berak bereizketak egiten ditu
ikasleen artean, beraz,
Hezkuntza Lege Berria indarrean
sartzean ezingo dira kobratu"*

adieraziz zer kobratu behar duen, zenbat eta zein arrazoirengatik. Hezkuntza barruan auditoriak sortuko ditugu, hori guztia zaintzeko. Era berean, Partzuergoko haur eskolak ere 2023ko irailetik aurrera, doakoak izango dira.

Irakaslegoaren aukeraketa prozesua ere berdinu egingo da itunpeko ikastetxeetan eta publikoetan?

Ez. Itunpekoak izan arren, ikastetxe horiek pribatuak dira eta beraiek daukate euren langilegoa kontratatzeko autonomia, baina irizpide batzuk zehaztuko dira kontratazio horiek gardentasunez eta demokrazia osoz egin daitezen, azken batean, diru publikoak erabiliko direlako.

Mendaroko ikasleek LH bukatzean Elgoibarrera etorri behar izaten dute DBHko ikasketak egitera, Mendaroko ikastolan ikasle horiei jarraikortasuna emateko lekua egon arren. Posible izango litzateke Mendaron DBHko lerroa irekitzea?

Ez dut ezagutzen Mendaroko errealitatea, eta begiratuko dut, baina horrela ikusita bi egoera kontrajarri daudela iruditzen zait: eskolan lekua dagoela diozu, beraz, horrek esan nahi du ikasle gutxi dagoela, eta ikasle gutxi baldin badago kalitatezko eskaintza egitea ez da erraza izaten. Gutxieneko ikasle kopuru bat egotea beharrezkoa da. Demagun Batxilergoa egiteko zortzi-hamar ikasle daudela Mendaron. Zer eskainiko diegu ikasle gutxi horiei? DBHn gauza bera gertatzen da. Ikusi beharko litzateke zenbaterik bukatzen duten LH6, eta horren arabera erabaki. Baina, jakina, Mendaron DBH lerroa zabaltzeak, Elgoibarri ere eragingo lioke, eta hori ere neurtu behar da. Kalitatezko hezkuntza eskaintzea da helburua, eta horretarako gutxieneko ikasle kopuru bat egotea ezinbestekoa da.

Egungo gizartean kezka agertu dute adituek eta baita guraso askok ere umeek denbora gehiegi



ematen dutelako pantailen aurrean, eta eskoletan, aldiz, ikasgai asko pantaila bidez ematen dira. Ez al da kontraesana?

Ez da dena pantaila bidez egiten, eta iruditzen zait gai hau arduraz lantzen dela ikastetxeetan. Horretan adituak diren profesionalak ditugu lanean, eta kontziente gara denok gai hau neurtu beharrezkoa dela. Eskolak hori zaintzen du, baina galdera da, gure etxeetan, kaleetan neurtzen al dugu zenbat erabiltzen dugun pantaila? Edo etxean umeak euren gelara sartzen direnean kontrolatzen al dugu zenbat denbora eta zertan aritzen diren pantaila aurrean? Edo eskatzen digutenean baimena gure e-posta erabiltzeko beraien adinerako egokiak ez diren aplikazioak deskargatzeko, zergatik uzten diegu? Edo etxetik lanean ari garenean, 3-4 urteko umea entretenitzeko zergatik erabiltzen dugu pantaila? Edo jateke batera goazenean, zergatik jartzen diegu umei pantaila aurrean? Hori guztia da landu behar duguna. Ikastetxeetan oso kontziente dira horretaz, baina etxean ere izan behar gara. Gurasook zaindu behar dugu etxean eta etxetik kanpo ere nola erabiltzen duten pantaila gure umeek. Zaindu behar da non ibiltzen diren, zenbat denbora eta jasotzen dituzten estimulo horiek eragiten dizkieten ondorioak.

SPEAKER'S CORNER
DE CincuDías

sarenet
CONEXIONES PARA TU EMPRESA

Seguridad para centros de I+D Industrial

Desde 1986

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Debabarrena BIEMH azokan

Lau urteko geldialdiaren ostean, aurtten, ekainaren 13tik 17ra bitartean batuko dira berriz makina-erremintako ekoizle eta bezeroak BIEMH 2022 azokan. 26 herrialdeetako 1.200 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute Barakaldoko BECen, tartean Debabarrenekoak ere bai, euren produktuak, berritasunak eta zerbitzuak bezeroei erakutsi eta harreman komertzialak egiteko gogoz.

C-10

BIEMH bueltan da

DEBABARRENEKO 32 ENPRESAK HARTUKO DUTE PARTE BERTAN

AFM Makina-Erreminta Ekolizleen Elkartearen ustez, ekainaren 13tik 17ra bitartean BECen egingo den BIEMH 2022 makina-erremintaren azoka inoiz baino beharrezkoagoa da, "gaur egun bizi dugun egoera konplexuan". Horregatik, azken hamarkadan egon den parte-hartzaile kopuru handiena bilduko da BECen: 26 herrialdetako 1.200 enpresa baino gehiago. "Izen-emaiteen kopurua eta aurten egin diren antzeko ekintza txikiagoetan atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartzen baditugu, BIEMHren 31. edizloko parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusi dezakegu", diote AFMtik.

Enpresa horien artean Debabarreneko 32 izango dira: Itziar-Deba industrialdean dauden Alteyco, Chiron, Dexis, GER, Gurutzpe, Mosnic-Irudex, Tecnifuelle eta Zeatz; Elgoibarko Berkoa, Burge-lu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sarriki, Smartpm eta Unceta; Elbaroko Egasca, Izalan, JAZ Zubiaurre, Metronic, Neurtek eta Tekniker; Ermuko Blum, Cortesa, Innocut eta Herval; Mendaroko Urkunde; Sorluzeko Elesá-Ganter; eta Osintxuko Soraluze.

Parte-hartzaileak sei pabilioitan banatuko dituzte, azpisektoreka: industriarobotak, manipulazio-sistemak, kontrolerako softwareak,

industria-automatizazioak, tratamenduak, osagaiak, gehigarriak... Eskualdeko enpresa gehienak lehen pabilioian egongo dira kokatuta.

Makina-erremintaren sektorea oso bizkor ari da garatzen. Hori dela eta, azterketa eta gogoeta egiteko asmoz, BIEMHk arreta berezia jarriko die berrikuntzei eta aurrerapen teknologikoei. Horrela, fabrikazio aurreratuan dabilzan enpresek atal bereziak izango dituzte. Esaterako, 3D inprimaketan jarduten dutenak, ADDIT3D atalean elkartuko dira eta digitalizazioan espezializatu-takoak BeDigital atalean.

Hitzaldiak eta festa

Enpresek euren produktu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, zenbait hitzaldi antolatuko dituzte BIEMHren inguruan. Hala, nazioarteko 55 hizlarik sektoreari dagozkion gaiak jorratuko dituzte: industria-mantenuaren berrikuntzak, automatizazioa eta ro-

"Atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartuta, parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusi dezakegu"



botika, eraldaketa digitala eta fabrikazio aditiboa. Horiek eta azokaren gaineko beste hainbat eduki zuzenean eskainiko dituzte BIEMH TV telebista-katearen bitartez: produktu berriak, sektoreko profesionalen lekukotzak...

Bestalde, hilaren 15ean, eta giro lasaian negozio-harremanak sustatu asmoz, BIEMH Fest izeneko jaialdia antolatuko dute Bilboko kaleetan, 19:30etik aurrera.

Euskal industriaren oinarri

Orain dela egun gutxira arte AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan den Cesar Garbalenak esan bezala, makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak euskal industriaren oinarri dira, eta berebiziko garrantzia dute Debabarrenean. Makina-erremintak pisu handia izan du eskualdeko industriaren historian (horren erakusgarri, Elgoibarren dagoen Makina-Erre-



Makina-erremintaren azoka Barakaldoko BEC erakustokian. BIEMH

minta Museoa) eta gaur egun ere enpresa asko dira bailaran sektore horretan dihardutenak.

AFMren azken txostenaren arabera, makina-erremintaren sektoreak susperraldia bizi du pandemiak eragindako gorabeheren ondoren eta, 2021ean fakturazioa %18 hazi ostean (igoera 1.571,20

milioi eurokoa izan da), 2022an %7-10 igotzea espero dute. Horrela, aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu.

lazko bigarren seihilekoan zailtasunak izan ziren arren (osagaien eta materialen falta eta garestitzea,

inflazio-tasa handia, Txina bezalako merkatuetan sartzeko zailtasunak...), 2021ean esportazioak %23,41 hazi ziren 2020arekin alderatuz eta AEB, Italia, Alemania, Txina, Frantzia, India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua izan ziren hemengo ekoizleentzako merkatu nagusiak. Eskeraek %30 hazi dira 2019ko datuekin alderatuz eta %69,2 2020koekin konparatuz gero.

Datu horiek kontuan hartuta, sektoreak baikor begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak ondorioak ekar ditzakeen. Izan ere, AFMko enpresek Errusiarekin zituzten harreman komertzialak eten dituzte, baina klusterrekoek diotenez "kaltetutako operazioak ondo estalita daude eta, gainera, sektorearen salmenten %1-3 besterik ez ziren egiten Errusian, batez ere aeronautikarekin, trenekin eta energiarekin zerikusia zutenak".

Aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu



Enpresek harremanetarako baliatzen dute azoka. BIEMH

Elesa Ganter Iberica

“GURE ASMOA DA AURTEN BISITARI KOPURU ERREKORRA JASOTZEA”

Elesa+Ganter Iberica SL Soraluzeke Mendiola industrialdean kokatuta dagoen enpresa da, zehazkiago esateko, mundu mailako osagaien merkatuan liderrak diren Italiako Elesak eta Alemaniako Ganter etxeek 1997an sortu zuten joint venturea. Filialak makinenzako osagaiak ekoizten ditu: bisagrak, imanak, erroberak, ixteko eta estutzeko elementuak... Azken 11 urteetan, hazkunde ikusgarria izan du %750 hazita eta sektoreko lider bihurtzea lortu du Iberiar Penintsulako merkatuan.

Jesus Blanco Zuzendari Orokorrak azaldu du: “Pandemiaren ostean, sektorearen egoera esponentzialki hobetu da eta gaur egun enpresaren egoera oso ona da. 2021ean, gure enpresak marka historikoa ezarri zuen 8,5 milioi euro fakturatuta”. Filialak 25 urte bete dituen honetan, lantaldea 27 pertsonak osatzen dute eta Soraluzeke lantokiak 3.000 metro koadro baino gehiagoko instalazioak ditu, gehienak enpresak duen stock zabalari eskainiak.

Blancok azaldu duenez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira merkatuan eta lan egiteko moduetan: “Gaur egun, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arrotara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatuagoa da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hiltzen zara. Ez dago besterik”.



Elesa Ganterreko komertzial taldea. ELES+GANTER



Produktuen gama. ELES+GANTER

Azokari begira

Blancoren ustez, ekainean BECen egingo den makina-erremintaren biurteko azokak “funtsezko garrantzia” du sektorearentzat eta sektorearen egoeraren “adierazle ezin hobea” da, “erakusketari kopuruagatik eta bertan ezagutu daitezkeen produktu eta teknologia berriengatik”.

Aurtengo azoka arrakastatsua izango dela aurreikusten du Blanco: “Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago. Gure asmoa da bisitari kopuru errekorra ontzea”. Horretarako, Elesa Ganterrek azken urteotan merkaturatu dituen produktu berri guztiak erakutsiko ditu bere Barakaldoko azokan. Zuzendari Nagusiak garbi du zein den Elesa Ganterren helburua aurtengo edizioan: “Enpresaren presentzia mantentzea eta gure jarreraren sendotasuna berrestea”.

“Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago”

JESUS BLANCO

Danobat Group

DANOBATEK AEROSORGAILUEN PALAK EGIAZTATZEKO SOLUZIOA ERAKUTSIKO DU BEC-EN

Danobat Group Mondragon Taldeko kooperatiba talde arrakatsuenetakobat da, makina-erremintaren sektorean prezisio eta tamaina handiko makinak ekoizten dituen, Danobat eta Soraluze markapean. Hornitzen dituen sektore nagusien artean aeroespaziala, tren, automobilgintza, energia, petrolioia eta gasa daude. Hala, Deba bailarako taldeak ia 226 milioi euro fakturatu zituen eta, gaur egun, 1.300 langile ditu munduko hainbat herrialdetan zehar dituen 15 ekoizpen guneetan banatuta: Deba bailaran, Alemanian, Erresuma Batuan, Herbeheretan...

Pello Rodriguez Danobatgroupeko Zuzendari Orokorraren esanetan, makina-erremintaren sektoreak, "oro har", pandemia aurreko salmenta- eta esportazio-mailak berreskuratu ditu eta 2022ari begira dio, urte hasierak "ekitaldi ona" iragarri duela, "merkatu nazionala eta automobilgintza zein aeronautika bezalako sektoreak moteldu diren arren". Nazioartean ere "Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako hornidura-kateen egoera konplexua eta arazo logistikoak eta Txinako Gobernuaren COVID zero politikak sortutako ziurgabetasuna gorabehera", sektoreak aurrera egingo duela uste du, "industria-sektore gehienak inbertitzen eta eskaerak egiten" jarraitzen dutelako. Danobatgroupi dagokionez, "2022ko lehen lauhileko erritmoari eutsiz gero", 2019ko datuak errekoiperatuko dituelakoan da Rodriguez.



Danobatek puntako teknologiarekin ekoiztutako makina. DANOBAT

Azokarako nobedadea: Endity Zuzendari Orokorraren esanetan, BIEMH azoka "erakusleho ezin hobe da sektorean dauden azken garapenak erakutsi eta sektoreko eta ekosistema osoko eragileekin elkarreragiteko ere". Alde horretatik, Zuzendari Orokorraren ustez biurtekoa aukera ona da Danobatgroupeko kooperatibek, "Danobatek, Soraluze eta Idekok, euren ibilbide zabalaren berri" eman dezaten. Gainera, aurretik, "lehen aldiz", balio erantsi handiko piezen ekoizpenerako makinez gain, Endity Danobatgroupen enpresa berriak "aerosorgailuen pa-

"Erakusleho ezin hobe da azken garapenak erakutsi eta sektoreko eragileekin elkarreragiteko"

lak egiaztatzeke eratu duen soluzioa" erakutsiko du BEC-en. Horixe izango da Danobatek azokara eroango duen nobedade nagusia.

Bestalde, aurretik, "pertsonek eta talentuaren aldeko apustua eginez", Danobatek Working Talent Hub industria-enplegu foroan ere parte hartuko duela iragarri du Rodriguezek.



Kooperatibako langileak. DANOBAT

25 YEARS
Elesa+Ganter
IBERICA

elesa+Ganter ^{EG}

ELESA+GANTER IBERICA EN BIEMH 2022

EZAGUTU GAITZAZU

GURE STAND-EAN:

Ekainaren 13tik 17ra

BEC!

1 Pabiloia

F21 Stand-a



*Ezagutu gure produktu katalogoa elesa-ganter.es webgunean eta jarrai gaitzazu hemen:    




DESIGNED FOR ENGINEERING

+34 943 75 25 20

info@elesa-ganter-iberica.com

DANOBATGROUP

 SORALUCE

 DANOBAT

DOITASUNA GARA AUTOMATIZAZIOA GARA

Fabrikazio aurreraturako
abangoardiako teknologia gara.



31BIEMH
YOU MAKE IT
BIG AGAIN

1 PABILOIA
C-09 Stand-a

danobatgroup.com



Sanbartolomeetarako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak

2022ko San Bartolome Jaietako programaren azala eta haurren jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Programaren azala aukeratzeko lehiaketan 18 urtez gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, teknika librean (argazkia, pintura, marrazkia, collagea...). Lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira honako neurrian: 225 mm X 225 mm neurrian edo proportzionalen, 300 puntu hazbeteko bereizmenean. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu eta lanak aurrez beste inon argitaratu gabeak izan beharko dira. Era berean, ezingo da aurrez aurkeztutako lanik aurkeztu eta kartelean honako testu honek agertu beharko du ezinbestean: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2022*. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an, 13:00etan, bukatuko da. Aita Agirre kulturagunean aurkeztu beharko dira.

Haurren kartel lehiaketa

18 urtez beherako elgoibartarrek parte hartu ahal izango dute, teknika librean. Hala ere, ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu lehiaketara, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakoak ere. Aurkezten den lanean ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2022*. Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu beharko dira ekainaren 23rako, 13:00etarako beranduenez. Udalak sei sari banatuko ditu.

Arteterapia tailerra Mendaron

Geuk Berdintasun Aholkularitzak Arteterapia tailerra emango du Mendaroko Jubilatu Etxean ekainean eta uztailean. Tailerraren egun zehatzak ekainaren 1a, 8a, 15a, 22a, 29a eta uztailearen 6a izango dira. Saio guztiak ordutegi berdina izango dute: 10:30-12:00. Tailerra elebitan izango da. Izena emateko azken eguna: maiatzaren 31. Mendaroko Udaletxean bertan apuntatzeko aukera egongo da, eta bestela, gizartekintza@mendaro.eus edo erregistroa@mendaro.eus helbideetara idatzita.



📷 Jose Ramon Cabrera

Debabarreneko orkestrak kontzertua eman zuen Herriko Antzokian

2018ko maiatzaren 4an eman zuen azken kontzertua Debabarreneko orkestrak, eta ordutik domekara bitartean aldaketa asko izan ditu taldeak. Pandemia bizi izan dute, entseatzeko zailtasunak, musikari aldaketak... baina hala ere, pozik igo ziren domekan Herriko Antzokiko oholtzara. 23 musikari izan ziren oholtzan, Iñigo Cearsoloren zuzendaritzapean. Pozik azaldu zen zuzendaria kontzertu amaieran, eta musikari guztiak zoriondu zituen, musutruk egiten duten lanagatik. Era berean, Inazio Bereziartua musika eskolaren lana ere nabarmendu zuen, "harrobi ezin hobea sortzen ari delako". 2017ko azaroan hartu zuen Cearsolok Debabarreneko orkestraren ardura.

Kamiseta lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak santanetarako

Mendaroko Udalak kamiseta lehiaketa antolatu du, eta ekainaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Ondoren, herritarrek gustukuena aukeratu dute online bidez, ekainaren 10etik 19ra bitartean. Irabazleak 200 euro jasoko ditu, eta ondoren Udalak salgai jarriko ditu kamisetak. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, 16 urte beteta eduki beharko dira eta diseinuak ondorengo baldintzak bete beharko ditu: testuren bat izatekotan euskaraz izan beharko da; ez da urterik aipatuko; kolore bakarra izango du eta inpresio eremua gehienez 250 mm x 150 mm-koa izango da. Lanak PDF formatuan bidali behar dira erregistroa@mendaro.eus helbidera. Lehiaketako oinarriak ikusteko: www.mendaro.eus.

Garai bateko eskola-kontuak eta jolasak biltzen dihardu Arno Guraso Elkarteak Mendaron

Herrigintza, belaunaldiartekotasuna, transmisioa, ahozkotasuna eta euskara. Bost ardatz horien bueltan, Mendaroko ondare bizia jasotzeko proiektua abiatu zuen iazko neguan Arno Guraso Elkarteak. Eguberrien bueltan zetozkien oroitzapenez galdetu zieten 24 laguni orduko hartan, eta abenduan, egunez egun, grabazio horietako txatal bana eman zuten. Orain, egitasmo hari heldu diote berriro, baina gaia aldatuta. Garai bateko eskola kontuak eta jolasak ekarri nahi dituzte gogora, eta hasita daude mendarorrei galdezka. Arnotik jakinarazi dutenez, 40 bat lagun elkarrizketatu nahi dituzte. Grabazio lanetan Jairo Berbel argazkilaria eta bideogile elgoibartarra ari da eta hari agindu dizkiote edizio-lanak ere. Arno Guraso Elkartetik eskerrak eman dizkiete



proiektuan beren onena ematen ari diren herritarrei. "Izan direlako gara eta garelako izango dira eta bide horretan gure alea jarri nahi izan dugu, baina herritarren laguntzarik gabe ezingo genuke egin. Horregatik biziki eskertzen dugu mendarorrek proiektu honetarako agertu duten prestutasuna", zehaztu dute.

Elgoibar Ikastolaren Eguna ospatuko dute ekainaren 4an

Datorren ekainaren 4an, Ikastolaren eguna ospatuko dute, ikasturteari amaiera jai giroan emateko. Goizean goizetik plazatik ikastolaraino joango dira kalejiran trikitalari eta buruhandiek, eta ondoren, hainbat ekintza izango dituzte Ikastolan bertan: altxorraren bila, herri kirolak, eskulanak... Eguerdian Niala magoaren ikuskizuna eta dantza lehiaketa egingo dituzte.

Vanessa Pinar eta Luken Arano sailkatu dira Madrilerako Mendaron jokatu duten Catan mahai-jokoaren txapelketan

Mahai-jokoaren jardunaldia antolatu zuen Eibarko Odisea Elkarteak zapatuan Mendaron, Udalaren eta Devir argitaletxearekin elkarlanean eta Arno Guraso Elkartearekin eta Uztargiren laguntzarekin. Askotariko jolasak ekarri zituzten Odiseakoek eta haietan jolasteko aukera izan zuten hurbildu zirenek, elkartekideek lagunduta. Jardunaldi horren barruan, baina, Catan mahai-jokoan lehiatzeko aukera ere izan zen. 10 urtez gorako hogeitaz lagunek eman zezaketen gehienez izena txapelketarako eta hemezortzi aurkeztu ziren guztira. 10:30ean hasi eta 15:00ak aldera arte luzatu zen txapelketa, eta parte hartu zutenetako bi lagun Madrilen jokatu duten finalerako sailkatu dira: Vanessa Pinar (Castro Urdiales, Cantabria) eta Luken Arano



(Ermua). Txapelketa Devir argitaletxeak antolatu du eta sailkatu direnek gastu guztiak ordainduta izango dituzte Madrilerako joateko. Sailkatu direnek joan ezingo balute, zapatuan hirugarren eta laugarren sailkatu zirenak joango dira haien lekuan: Lucia Arano (Ermua) eta Angel Gago (Mendaro, 2011).

'Zinemakopa' taularatuko du gaur Taupadak, Herriko Antzokian



Taupada antzerki taldeak *Zinemakopa* antzerkia taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Antzerki taldeak azaldu dute iazkoaren haritik datorrela lan hau ere, baina erabat obra berria dela, aurrez ikusi gabekoa. Hainbat film ezagunetako pasarteetan oinarritutako musikala prestatu dute Taupada antzerki taldekoek, Eburne Lasaren zuzendaritzapean. Jose Mari Larrañagak teknikari lanak egingo ditu eta aktoreak hauek izango dira: Ibai Leon, Oihane Gartzia, Aitor Guisasola, Nagore Cid, Sara Iriondo, Dani Zelaia, David Rodriguez, Jon Iraola, Maixux Otaegi, Ruben Markina, Sohelen Vargas eta Gorka Luna. Emanaldiak 75 minutuko iraupena izango du, eta publiko helduari dago zuzendua. 20:30ean hasiko da. Sarrerak salgai daude www.herrikoantzokia.eus webgunean, baina Herriko Antzokiko lehiatilan ere erosi ahal izango dira.

Elgoibarko Kale Kantariak ez dira kalera irtengo sanbartolomeak arte

Maiatzeko azken zapatuko ferian irtetekoak ziren Elgoibarko Kale Kantariak bihar, baina jakinarazi dute ez direla irtengo, ez maiatzean eta ezta ekainean eta uztailean ere. Hurrengo kantaldia San Bartolome jaietan egingo dutela esan dute.

Udalak dirulaguntzak emango dizkie UEUK antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten elgoibartarrei

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak, Eibarko, Iruñeko eta Gasteizko egoitzetan eskainiko dituen ikastaroak bertatik bertara edo online bidez egiten dituzten herritarrei. Udalak matrikularen erdia ordainduko die Elgoibarren erroldatuta dauden herritarrei, gehienez ere, 200 euroko mugarekin. Dirulaguntzari buruzko informazio gehiago lortu nahi dutenek Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo beharko dute (943 744 366 / euskara@elgoibar.eus).

UEUK, dagoeneko prestatu du udako eskaintza, eta irekita dago matrikulazio epea: Informazio gehiago UEUren webgunean (www.ueu.eus) edo UEUren bulegoetan (Bilbo, Eibar, Iruñea).

Aurreku txapelketan parte hartu duten dantzarien emanaldia gaur, Kalegoen plazan



Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak Aurreku Txapelketan parte hartu dute, eta behin txapelketak bukatuta, dantzaldia egingo dute gaur, Kalegoen plazan (Euria bada, Maalan). 10 eta 18 urte bitarteko 14 dantzari hartuko dute parte: Sare Meababasterretxea, Haizea Luluaga, Unax Ansola, Irene Toledano, Uxue Cabrera, Duna Santos, Elaia Etxaniz, Nerea Galindo, Malen Galarraga, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Markel Goenaga, Maddalen Oñederra eta Jone Gil. 19:30ean hasiko da dantzaldia.

PARTE-HARTZEA HANDITU ETA ERABILERAN JAUZI KUALITATIBOA EMAN NAHI DUTE 3. EUSKARALDIAN

✍️ Ainara Argoitia
👤 Imanol Larrañaga / Asier Orbea

Udazkenean egingo dute Euskaraldia ariketa sozialaren hirugarren edizioa, azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Maila pertsonalean nahiz kolektiboan parte hartu ahal izango da, baina ariguneak indartzea izango da aurtengo erronka [maiatzaren 18tik zabalik dute izena emateko epea]. Eta hirugarren Euskaraldiaz eta orain arteko biek eman dutenaz eta eman ez dutenaz jardun zen joan zen astean Elgoibarren Kike Amonarriz soziolinguista, Elgoibarko Euskaraldia Taldeak eskatuta. Amonarrizek garbi laga zuen Euskaraldia ez dela euskarak dituen gaitz guztientzako soluzioa, baina hizkuntza-ohituretan aldaketak eta hobekuntzak ekarri dituela, parte hartu dutenen gehiengoak euskara gehiago egiten duelako gaur, lehen baino.

Hizkuntza-ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitu nahi du Euskaraldiak, eta aurtengoa hirugarren urtea izango du. 2018an egin zen estreinako ariketa, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* lelopean, eta 16 urtez gorako norbanakoengan jarri zuten orduan fokua antolatzaileek. Ahobizi eta belarriprest rolean, milaka euskaltzalek parte hartu zuten, euskaraz berba egitea ordura arte baino errazagoa izan zedin. Bigarren ariketan, berriz, entitateak gonbidatu zituzten ariketan parte hartzera eta euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko guneak -ariguneak-, sortzeko eskatu zieten. Eta hain justu ere, arigune berriak sortzeko erronkari helduko diote sustatzaileek hirugarren



Euskaraldian, azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo denean. Izan ere, aurreko edizioetako balorazioetan ikusi dute euskara erabiltzeko gune babestuak izateak euskaraz egitea errazten duela. Edonola ere, ariketa masiboa izan da beti Euskaraldia eta hirugarren honetan ere maila pertsonalean nahiz kolektiboan parte hartu ahal izango da. Entitateentzat maiatzaren 18an zabaldu zuten izena emateko epea, eta norbanakoentzat irailaren 28an zabalduko dute. Helburua: parte-hartzea handitzea da, euskararen erabileran "jauzi kualitatiboa" emateko.

Eta hirugarrenerako prestaketak hasi dituzte herrietako batzordeetan. Elgoibarko Euskaraldia Taldeak, esaterako, Kike Amonarriz soziolinguista eta Euskaltzaleon Topaguneko lehendakaria gonbidatu zuen Elgoibarrera joan zen eguaztenean. Euskaraldiaren barruetan aztarka jardun zuen Amonarrizek, zorrotz eta umoretik. Azaldu zuen noiz, zergatik eta zertarako sortu zuten Euskaraldia eta aletu zituen lorpenak eta erronkak, lau-bost galdera nagusiri erantzunez eta entzuleek post-it-etan idatzi zituzten galdera, kezka, bizipen, erronka eta bestelakoei erreferentzia eginez.



"Euskaraldiak barne dakartza funtzionatzeko paradigma berri baterako oinarriak: elkarlana, naziotasuna... Ez gaude ohituta horrela funtzionatzen, baina ikusten dugu potentzialitate handia daukagula"

ELKARTU, ADOSTU, AKTIBATU ETA IRABAZI

Topalaberen txostenean bildutako lau aditz horien bueltan ondu zuten Euskaraldia nazio mailako egitasmoa, baina ez zen kosta bakoa izan. "Artefaktu konplexua" baita Euskaraldia, ez delako erraza Euskal Herriko zazpi probintzietarako balioko duen makro formatu eraginkor eta egingarri bat sortzea, eta are gutxiago, eragile askoren artean. Eta horixe izan du lorpen handienetako bat Euskaraldiak, Amonarriren esanetan: sortzea lehenengo, eta horri eustea gero. "Euskaraldia hemen sortutakoa da, Korrika sortu zuten bezala, eta hemen

egiten dena nazioartekotzea kostatzen bazaigu ere, Korrika esportatu dute eta Euskaraldia esportatzeko lehen pausoak ematen hasita daude".

Premia eta nahia izan ziren Euskaraldia sortzeko pizgarriak, baina baldintza optimorik gabe nekez sortzen da garra. "Euskararen kale erabileraren bilakaera ikusita, normalizazio-prozesuari beste astinaldi bat emateko beharra ikusten genuen eta bagenuen, era berean, jende gehiagorengana iristeko molde eta planteamendu berri eta eraginkorren premia ere, baina hainbat faktore elkartu ziren Euskaraldia posible egiteko". Hiru nabarmendu zituen: oinarri teoriko sendoa bazegoela, esperientzia baliagarriak eta funtzionatu zutenak izan zirela aurrez, eta ordura arte ez besteko adostasun eta konfidantza giroa sortu zela. Bereziki Pello Jauregik teorizazioan egindako lana eta Lutxo Egiaren *Bi-lingual: transitoak* performance-a eta haren ondoren etorri ziren ahaleginak aipatu zituen batetik [Hilabetez, gaztelaniaz egin gabe bizi izan zen Bilbon Egia]. Eta bestetik, 2017ko Korrikan Euskal Herri osoko euskalgintzako eragileek eta eragile instituzionalek Santiagoko zubian elkarrekin kilometro bat egin zutenekoa, "argazki horrek sinbolizatzen duelako aldaketa sakonekoa, urteetan posible izan ez ziren aliantzak eta elkarlanak posible egin zitezkeela. Uste dut Euskaraldiak barne dakartzala

- **Zer da Euskaraldia:** Hizkuntza-ohiturak aldatuta, euskararen erabilera handitzeko sortu zuten ariketa soziala. Hirugarrenerako helburuak: parte-hartzea handitzea eta euskararen erabileran jauzi kualitatiboa ematea
- **Noiz:** Azaroaren 18tik abenduaren 2ra.
- **Nortzuk:** Hala nahi duten 16 urtez gorako norbanakoek eta entitateek (Erakunde publikoak, elkarteak eta gizarte mugimenduak, industria eta lan mundua...). Euskara ulertzea izango da baldintza.
- **Izen-emateak:** Maiatzaren 18an zabaldu zuten entitateek izena emateko epea. Irailaren 28tik aurrera eman ahal izango dute izena norbanakoek.



funtzionatzeko paradigma berri baterako oinarriak: elkarlana, naziotasuna... Ez gaude ohituta horrela funtzionatzen, baina ikusten dugu potentzialitate handia daukagula". Zailtasunak ere izan zituzten, jakina, metodologikoak eta "mesfidantza era askotarikoek" eragindakoak bereziki, baina "harrigarriki" Euskaraldiaren kontrako ahots kritikorik ez zela izan azpimarratu zuen Amonarrizek.

ZER LORTU DA ORAIN ARTEKO BI EDIZIOETAN?

Herritarren gehiengoak -baita erdaldunek ere- ezagutzen eta onartzen duen ariketa da Euskaraldia eta "kemen batekin, ilusioarekin eta itxaropenarekin" identifikatzen da, orain arteko ikerketek erakutsi dutenez. Gauza asko lortu direla nabarmendu zuen Amonarrizek, baina helburuari oso lotutako bat azpimarratu zuen: Euskaraldian parte hartu dutenen gehiengoak euskara gehiago egiten duela orain, aurretik baino. Eta zehaztu zuen: "Badakigu hau zerra bezala dela: Kolpea jotzen da, lortutako horretatik galtzen da gero, baina abiapuntu berria aurrekoa baino altuagoa da. Denboran mugatua da ariketa eta horrek ematen dio kolpe hori". Nolanahi ere, Euskaraldia gizartearen gune gehienetara

*"Euskal Herriko zazpi probintzietan
16 urtez gorako
750.000 euskaldun gara eta
250.000 lagunek parte hartu dute
Euskaraldian"*

heldu dela nabarmendu zuen eta norbanakoen eta era guztietako entitateen inplikazioa izan dela hasieratik. "Masibo diren gauza guztietan bezala, badakigu parte hartzen dutenen %100ek ez dutela %100 egingo, baina badakigu ere jendeak serio hartzen duela eta betetzen ez duenean ere, badakiela ez dela betetzen ari", aipatu zuen, Euskaraldia itxurakeriarekin lotzeko egon daitezkeen tentazioei aurrea hartuta. Horren harira zioen makro proiektuez ari garenean koherentzia totalik ez dagoela, baina horrelako kopuruetan ibiltzeak ematen duela mugimendurako aukera. Euskaraldian 250.000 lagunek parte hartu dute [zazpi probintzietan, 16 urtez gorako 750.000 euskaldun gara].

Parte-hartzea horren handia izatearen gakoa fokua euskararen ulermenean jartzean egon dela



*Fokua euskararen ulermenean jartzeak
ate asko zabaldu ditu, eta aldi berean,
atea zabaldu zaio jende askori, "jende
askok sentitu duelako estreinakoz
euskararen esparrura hurbiltzeko aukera"*

uste du Amonarrizek. Aldaketa horrek ate asko zabaldu dituela zioen, eta aldi berean atea zabaldu diola jende askori, "jende askok sentitu duelako estreinakoz euskararen esparrura hurbiltzeko aukera". Garbi zioen Euskaraldiak balio izan duela, baita ere eta bereziki, euskara agenda sozio-politiko-komunikatiboaren erdigunera ekartzeko, "nabarmen, gainera, lehenengo aldian". Berezia izan zen Euskaraldiaren bigarren ariketa eta aparteko balorazioa eskatzen du. Pandemia betean egin zuten eta baldintzatu zuten horrek ariketa goitik-behera, baina egin izana bera lorpen handitzat du Amonarrizek: "Bagenekien Korrika ezingo zela egin eta ikusten genuen Euskaraldia ere egiten ez bazen, ez genuela heldulekurik izango euskararen gaia erdigunera eramateko".

Eta praktika batzuen sozializazioa ere ekarri du Euskaraldiak, bai eta hausnarketa sozial masibo bat ere. "'Lehen hitza beti euskaraz' hori sozializatu dugu lema bezala, eta sozializatu dugu gainera gozo-gozo, inongo istilurik gabe. Eta bestetik, guri iruditzen zaiguna baino hausnarketa handiagoa erakarri du Euskaraldiak. Jabetu gara kontraesanez, aukerez, zailtasunez, hitz egin dugu etxeetan...asko da hori".

ZEINTZUK HUTSUNE IZAN DITU?

Lortu ez direnak edo nahi bestean lortu ez direnak ere baditu Euskaraldiak. Nagusiki, hiru: rolak ez dira beti behar bezala ulertu, hainbat sektoretara heltzeko zailtasunak izan dira eta hainbat erakunde eta entitateren inplikazioa ez da beti "benetakoa" izan. Euskararen inguruan egiten diren egitasmo eta kanpaina gehientsuenetan izaten da itxurakeria hori, hala ere, Amonarrizzen ustez. "Badago oraindik ere sinbolismoan gelditzen den jarrera bat eta horregatik ari gara behin eta berriz esaten hau ez dela kanpaina bat".

Orain urte batzuk Google euskaratzeko egin zen kanpaina ekarri zuen gogora horren adibidetzat. "Orduan bazegoen beasaindar bat Googlen eta seguraski berak bultzatuko zuen gainera kanpaina, erakunde barrutik. Sekulako firma pila batu ziren eta handik gutxira egin zioten elkarriketa bat 'Argia'-n eta lerro artean suma zitekeen norbaitek errieta egin ziola, esanez euskaldun askok sinatu zutela, bai, baina gero gutxik egiten zutela euskaraz Interneten. Eta hori da kontua. Produktu gehiago behar ditugu euskaraz, baina gero kontsumitu egin behar ditugu". Horren harira ohartarazi zuten hizkuntza-ohiturak aldatzea ere badela itxurakeriari aurre egitea: "Asko jokatu dute gure eguneroko praktika errealek, eta hemen erantzukizun handia izango dute baita ere Euskal Herriko entitate nagusiek. Euskaraldia ezin dugu euskararen aldeotasun huts batekin identifikatu. Hemen, konpromisoak eskatzen dira".

ERRONKAK ETA ARRISKUAK

Lorpenak irauraraztea da hirugarren Euskaraldiak duen arronka nagusia, Euskaraldiaren inguruan sortu den energia sozial

hori egonkortzeko bidea egitea, azken batean. Datu bat: Euskaltzaleon Topagunea ehun bat herritara iristen da, baina Euskaraldiaren harira 400 herri-batzorde inguru sortu ziren. 300 bat desegin dira, baina. "Energia horri eutsi behar diogu, hori delako Euskaraldiaren balioa". Eta arrisku bat aipatu zuen horren inguruan: gehiegizko instituzionalizazioa. "Arriskua litzateke hori, Euskaraldiak balio duelako batez ere dinamika sozial bat den neurrian eta herritarren partaidetza zabal bat lortzen den neurrian".

ZER EMAITZA EMAN ZITUEN 2020KO ARIKETAREN IKERKETAK?

Hedatzen jarraitzeko aukeren inguruan, hiru dira azpimarratzeko emaitzak: hazten jarraitzeko aukera handia duela Euskaraldiak, 250.000 lagunek eman dutelako izena eta horiek inguruan eragiteko potentzialitatea handia dutelako; jarraitu behar dela euskarazko hizkuntz portaerak indartzen edo berriak eskuratzen eta ariguneez harrera ona izan dutela eta eraginkorrak direla. Baina badira gehiago ere. Batetik, emaitzek erakutsi dute Euskaraldiaz egiten diren balorazio gehienak bizipenetan oinarrituta egiten direla eta oso direla garrantzitsuak horiek, eta bestetik, txapen eragina handia dela. Txapek balio izan dute taldeko sentitzeko, konplizitatea sortzeko, eta beraz, hirugarren Euskaraldian ere jantziko ditugu paparrean. Era berean, herrietako batzordeak berraktibatzeke ere lan egingo dute hirugarren edizioan, bai eta eragile sozialen eta instituzionalen arteko elkarlanean sakontzeko ere.

ZERGATIK HIRUGARREN EDIZIOA?

Bi helburu nagusi izango ditu hirugarren Euskaraldiak: batetik, Euskaraldian parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea. Hau da, ariketaren portaeretan sakontzean eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea. Eta bestetik, parte-hartzea handitzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. "Inertziak astindu eta erabilera handitu nahi da, eta bideak hiru dira: euskaldunok euskaldunekin euskaraz egitea, lehen hitza beti euskaraz egitea eta elkarrizketa elebidunak sustatzea", azaldu zuen. Baina, erraza uste dena ez da beti hain erraza izaten, eta

"Elkarrizketa elebidunak ez dira beti erosoak eta eskatzen dute entrenatzea, eta momentu batzuetan, esplizitatzea".

Hirugarren Euskaraldian ahobiziak ahaldu nahi dituzte

horregatik, Euskaraldian parte hartzen dutenei tresnak eskainiko zaizkie ahalduentzeko. Beste modu batera esanda, ahobiziak kualifikatu nahi dituzte eta horretarako aholku-saioak, ahalduentze eskolak... eskainiko dituzte, besteak beste, lehen hitza euskaraz egin ahal izateko egoera ezberdinetan eta ez daitezen ahobiziak "beti eta automatikoki" erderara pasatu zalantza minimo bat agertzen zaienean. "Elkarrizketa elebidunak ez dira beti erosoak eta eskatzen dute entrenatzea, eta momentu batzuetan, esplizitatzea. Kasu batzuetan esan egin beharko dugu. 'Zuk segi gaztelaniaz eta nik euskaraz egingo dizut, konforme?'".

Elkarrizketa elebidunak gero eta gehiago entzungo direla dudarik ez du Amonarrirez, besteak beste honakoagatik. "Duela hogeita hamar urte oso jende gutxi zegoen ulertzen zuena baina hitz egiteko gai ez zena, baina gaur egun jende asko dago ulertzen duena, hitz egiteko gai dena, baina egiten ez duena, lotsagatik edo inguruagatik. Aukerak asko ugaltu zaizkigu". Elkarrizketa elebidunak "aukera sozial" bihurtuko direla zioen, baina "giharra" egin behar dela.

Hirugarren Euskaraldian, beraz, ariketa hobetzerantz bideratuko dira indarrak, bai eta euskalgintza aktibatzerantz ere. Eta aktibazioa indartzeko, izen ematea erraztuko dute. Udazkeneko ariketarako izen emate berriak bakarrik jasoko dituzte eta lehendik izena emanda zeudenei datuak berresteko -eta beharrezko balitz, aldatzeko- eskatuko diete. Eta ahaleginduko dira izena ematen duten entitateek euskaraz bizitzeko konpromisoak har ditzaten eta konpromiso horiek bistaratzeko. "Hau da, praktika onen gizarteratze masibo bat egingo dugu".

Elgoibarko erraldoiekin batera Bilboko, Txantreako eta Bergarakoek hartuko dute parte biharko topaketan



Mauxitxa Txaranga 1970. urteko Txiki Egunean irten zen estreinakoz kalera, eta beraz, 2019an jo zuen 50. aldiz San Bartolome jaietan. 50 Txiki Elkarrekin lemapean prestatu zuten urteurrena, eta 2019ko Txiki Egunean hasi zuten egitaraua. 2020 urte osorako prestatu zituzten ekintzak, eta tartean, erraldoien topaketa egitea ere aurreikusi zuten, urte hartako Trinitate jaien bueltan. Alabaina, koronabirusaren pandemia iritsi zen, eta dena bertan behera geratu zen hartan, Mauxitxak ere ezin izan zuen 50. urteurrena osotasunean ospatu.

Bi urte pasatu dira ordutik, eta ekintza batzuk egingo ez badituzte ere, erraldoien topaketa egitea erabaki dute; bihar izango da. Antolatzaile lanetan Elgoibarko dultzaineroak ere sartu dira, izan ere, aurten bete dituzte 50 urte herriko dultzaineroek, eta festara batu dira. Bihar beraz, Mauxitxak, dultzaineroek eta erraldoiek bat egingo dute Elgoibarko kaleetan.

Elgoibarko erraldoiekin batera, Bilboko, Bergarako eta Txantreako erraldoien konpartsak ikusteko aukera izango da, eta guztira 25-30

bat erraldoi batuko dira. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta goizean goizetik jai-giroa izango da herriko kaleetan. Mauxitxa txarangak diana joko du 10:00etatik aurrera, eta eguerdian erraldoien erakusketa egingo dute Kalegoen plazan. Ondoren, konpartsetako partaide guztiak elkarrekin bazkalduko dute elizako arkupeetan. 120 bat lagun bilduko dira guztira. Mauxitxa txarangako beteranoek ere egin diete bazkaritarako gonbitea, eta hasierako taldeko 15 bat lagunek baieztatu dute agertuko direla. Arratsaldean jarraituko du festak: 17:30ean erraldoien kalejira egingo dute. Elgoibarko erraldoiak Mauxitxa txarangarekin joango dira konpartsa erraldoiaren aurrean, dultzaineroak Bergarako konpart sarekin eta Bilboko eta Txantreako konpartsek beraien musikariak eramango dituzte.

Ilusioz daude antolatzaileak, eta baita herritarrak ere. Bi urtez ekitaldiak bertan behera laga behar izan dituzte koronabirusagatik eta herria festa gosez dago. Erraldoi eta buruhandiek jai-giroa pizten dute, eta bihar ere ez dute hutsik egingo.



Igeriketa Eguna egingo dute bihar Olaizagan

Olaizaga kiroldegiko igerilekua gaztetxo beteko da bihar. Igeriketa eskolako kideez gainera, 6 eta 14 urte bitarteko dozenaka umek hartuko dute parte Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatzen duen Igeriketa Egunean. Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. maila bitarteko umek hartuko dute

parte, 10:00etatik aurrera. Txikienentzako jolasak prestatu dituzte Elgoibarko Igeriketa Taldekoek eta koskortuagoentzat hainbat proba antolatu dituzte. LHko 4tik 6ra bitarteko ikasleek 10:00etarako egon beharko dute igeilekuan eta 11:00etarako LH 1etik 3ra bitartekoek.

Udako ikastaroetan izena emateko epea, zabalik



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak udan kirola egiteko ikastaro sorta antolatu du. Helburua da herritarrei kirol eta aisia aukerak eskaintzea herrian bertan. Ekainaren 27tik uztailearen 22ra 4 ikastaro egongo dira aukeran: spinning gazteak, zumba, eskalada eta igeriketa. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko eta horretarako olaizagaharrerahotmail.es helbidera idatzi behar da. Izena emateko azken eguna: ekainak 17. (informazio osoagoa: barren.eus).

Ainhoa Lendinez bosgarren Txindokiko Kilometro Bertikalean



Txindokiko Kilometro Bertikala jokatu zuten aurreko zapatuan, eta kronometroak birrindu zituzten, bost mendi lasterkarik ondu baitzuten Manuel Merillasek zuten probaren errekorra. Asier Larruzea Fernandez gueñestarrak 36 minutuko langatik jaitsi, eta 35:59an ezarri zuten errekor berria. Emakumezkoetan Oihana Kortazar izan zen azkarrena (44:05), eta bosgarren postua lortu zuten Ainhoa Lendinezek. 3,6 km-ko eta 980 metroko desnibel positiboko ibilbidea 48 minutu eta 54 segundoan osatu zuten elgoibartarrak.

Eneko Ortegak hirugarren egin du Amurrioko Sari Nagusia txirrindulari lasterketan

J oan den asteburuan ere kilometro mordoia pilatu dituzte Elgoibarko Lagun Taldeako txirrindulariek. Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan jokatu dituzten lasterketan hartu dute parte. Txirrindulari elgoibartarrek Arabako errepideetan hasi zuten asteburua, Eneko Ortegak eta Aritz Esnaolak Amurrioko Sari Nagusiaren V. edizioan lehiatu baitziren zapatuan, junior kategoriako Euskal Herria txapelketako proban. Txirrindulariek bost itzuli egin zituzten Saraube eta Larrinbeko mendateetan barrena, eta Lizarte taldeko Iñaki Ordoki izan zen azkarrena (2:21:49). Bakarrik helmugaratu zen. Tamirat Navarro (Eleyco-Iturribero) eta Eneko Ortega (Besa Laboral Kutxa) elkarrekin ailegatu ziren helmugara, baina Navarro izan zen azkarragoa esprintean, eta irabazlearengandik 44 eta 46 segundora sartu ziren helmugan Navarro eta Ortega. Hala, podiumeko hirugarren koskara igo zen txirrindulari elgoibartarra. Domekan Nafarroako Obanos herrian jokatu zuten lasterketan lehiatu zen Ortega, eta hor ere nabarmendu zen, seigarren postuan sailkatu baitzen. Lagun Taldeako txirrindulari gaztetxoenek Azkoitiko proban hartu zuten parte zapatuan, Antton Oñederraren Omenezko III.



Lasterketan, hain zuzen ere. Benjamin, alebin eta infantil mailatako ehun neska-mutil batu zituen probak, tartean Elgoibartik joandakoak. "Guztiek pasatu zuten ondo, eta gainera Aroa Saezek bigarren egin zuen nesken infantil mailan eta Paul Mendikutek laugarren egin zuen alebinetan", azaldu dute txirrindulari eskolako arduradunek. Domeka arratsaldean, berriz, Arroa Behean jokatu zuten Arroa Saria proban aritu ziren kadeteak.

Mendaroko eskola-umeek Kirol Eguna ospatuko dute bihar



Kirol Eguna antolatu du Arno Guraso elkarteak biharko. Aurrez izena emanda dauden Mendaro ikastolako ikasleei zuzenduta daude ekintzak. Goiz guztian zehar, taldea antolatuta, jolas desberdinak egingo dituzte haurrek. Jolasek, beti ere, parte-hartzea eta taldelana sustatuko dituzte. LHko ikasleentzako ekintzak 9:45ean hasiko dira eta HHkoentzakoak, berriz, 10:15ean. Bukatu, berriz, 13:30ean bukatuko dute jardunaldia.

Gipuzkoako Kopako finala jokatuko du C.D. Elgoibarko gizonen bigarren taldeak

CD. Elgoibarko gizonen bigarren taldeak Gizonezkoen Gorengo Mailara igotzea lortu zuen aurreko jardunaldian, matematikoki. Eta, orain, Gipuzkoako Kopako finala jokatuko sailkatu da. Gipuzkoako hogeitau talde lehiatu dira Gorengo Mailarako igoera fasean, bi multzotan banatuta, eta multzo bakoitzeko lehen sailkatuek jokatuko dute finala. Elgoibarko taldeak azken jardunaldian eskuratu du bere multzoko lehen postua. Touring liderraren etxean jokatu zuten elgoibartarrek azken partida, Errenterian. Partida zoroa izan zen, amaitzeko hamar minuturen faltan 3-1 irabazten ari baitziren etxeokak, baina azken zortzi minutuetan hiru gol sartu zituen Elgoibarrek eta markagailua iraultzeaz gainera, sailkapen nagusian ere aurrea hartu zion Touring-i. Orain, beste multzoan lehen postua lortu duten Segura Goierriren aurka jokatuko dute Gipuzkoako Kopako finala, erregional mailako talderik



onena zein den erabakitzeko. Bihar, hilak 28, jokatuko dute finala, Tolosako Usabal futbol zelaian.

Lehen Mailako infantil mailan diharduen C.D. Elgoibarko Infantil Gorria taldeak txapeldunen fasea jokatu zuen aurreko asteburuan,

eta txapeldunorde gelditu dira. Zapatuan jokatu zuten finalerdietako kanporaketan 1-4 irabazi zioten Orioko taldeari, Orion jokatutako partidari. Finala domekan jokatu zuten, Deban, eta 2-1 galdu zuten Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka.

Iñigo Larizek hirugarren egin du Green Series XCO Zallako lasterketan

Mendi bizikletako XCO zirkuituaren seigarren saioa egin zuten domekan, Zallan. Iñigo Gomez (Nesta) eta Olatz Odriozola (Bizikleta.com) gailendu ziren elite kategorian; eta, Master 30 kategorian, berriz, Iñaki Carro (Scbikers) izan zen azkarrena (1:15:03). Iñigo Larizek (Elgoibarko Lagun Taldea-Gobike) hirugarren postua eskuratu zuen (1:17:06), eta sailkapen nagusiko hirugarren postuan dago bere kategorian, 790 punturekin. Iñaki Carro liderrak 1020 puntu ditu, eta 990 bigarren dagoen Carlos Larzabalek.





📷 Ane Galindo

Josu Artola amezketarra gailendu da Urruzunon jokatu duten Enduro proban

Josu Artolak neurria hartua die Elgoibarko mendi-bideei. Joan den azaroan, Idotorben jokatu zuten Espainiako Hard Enduro Koparako proba puntuagarria irabazi zuen, eta oraingoan ere bera izan da onena estreinakoz Urruzuno bailaran egin duten Enduro lasterketan. Gidari amezketarrak 18 minutu eta 26 segundoan osatu zituen Urnokitza Kirol Klubak prestatutako zirkuituari eman beharreko hiru itzuliak. Manuel Santaolallak egin zuen bigarren (18:38.285). Euskadiko Enduro Txapelketako lehen probako irabazlea, Urko Garmendia, bosgarren postuan sailkatu zen Elgoibarkoan, baina lider jarraitzen du, 48 punturekin, Josu Artolak ez baitzuen parte hartu Bertizaranan jokaturako lehen proban. Edonola ere, hasi besterik ez da egin Euskadiko txapelketa, zortzi probaz osatua baitago. Urnokitza taldeko bi moto gidari lehiatu ziren etxeko proban eta bikain moldatu ziren Igor Iriondo eta Eneko Sanz (goiko argazkietan eta albokoan), Junior Trofeoko bigarren eta hirugarren postuak eskuratu baitzituzten, Paul Bravo irabazlearen (20:28.412) atzetik. Bravok 17 urte besterik ez dituen arren, etorkizun handiko gidaria dela laga zuen agerian. Iriondo eta Sanz estreinakoz ari dira parte hartzen Euskadiko

Enduro Txapelketan eta gidari hasiberriek egin ohi duten legez, Junior Trofeo mailan lehiatzen ari dira. Txapelketetan eskarmentu gabeko pilotuak lehiatzen dira kategoria horretan, eta hiru urteko esperientzia pilatu eta gero hasten dira lehiatzen irekian. Urnokitza taldetik jakitera eman dutenez pozik daude Enduroak izan duen kokagune berriarekin eta ikusleek ere Urruzuno leku aproposa dela esan dietela azaldu dute. "Jendea pozik zegoen aldaketarekin, bai zirkuituarekin, bai eta aparkatzeko erraztasunekin ere. Taberna jartzeko aukera ere izan genuen Urruzunoko Elkartearen ondoan, eta giro polita sortu zen", esan dute.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan.
642 395 031

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulua daukat.
631 425 686

Etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
643 490 069

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.
632 079 087

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Titulua daukat eta euskaraz dakit. Garbiketak eta etxeko lanak ere egiten ditut.
626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak egiteko ere prest.
631 487 666

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut.
632 915 336

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, etxeko langile moduan. Gauetan eta asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia handia dut.
722 408 667

OSPAKIZUNAK

Sigma auzokoek bazkaria egingo dute uztailaren 23an, auzoko frontoian. Izena emateko 50€ sartu behar dira kontu honetan, uztailaren 10erako: Laboral Kutxa: ES53 3035 0007 22 0070075881.

Eskaintzak

Elgoibarko enpresa batek jendaurrerako eta biltegirako pertsona bat behar du, arduratsua eta gogotsua. Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eta gidabaimena izatea baloratuko dira. CV helbide honetara bidali behar da: hornikuntza@gmail.com

5 eta 8 urteko bi ume zaintzeko pertsona bat behar dugu. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra, 12:30etik 16:00etara. 616 106 260

GARAJEAK

Garaje itxia alokagai Jausoro plazan. 672 422 237

BESTELAKOAK

Eskuetan gozo ibilitako katakumeak oparitzen dira. 688 649 596

Eratzun bat aurkitu dut, ezkontzakoa dirudi. 612 462 120

Txakurkumeak oparitzen dira. 688 642 761

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Prezio onean. 618 813 975



Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>administradores Compañía de Asesores de Gestión de Administradores de Empresas Instituto de Estudios Administrativos de la Universidad de Burgos</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean barruko patio bat dago eta hainbat etxebizitzatako leihoak hara begira daude. Patioa komuna da, baina beheko solairuko lokal batekoek baino ezin dezakete erabili. Lokal horretako maizterrak patioan eguzkitakoa ipini du ia patioaren adinako neurriak dauzkana, beraz, toldo bat dirudi. Tamaina dela-eta patioko horma batera lotzeko ainguralekuak ipini ditu. Eguzkitako horrek traba egiten die lokalaren goiko solairuko bizilagunei. Izan ere, patiora begira jarritako esekitokiak erabiltzen jarraitzea zailtzen du. Jakin nahi nuke eguzkitako hori ipini daitekeen edo ezin bada kentzea eskatu dezakegun.</p> <p>Nire ustez patioaren barruko aldearen kanpoko itxura aldatu da eta instalazioaren tamaina kontuan hartuta jarri aurretik bizilagunen komunitateko baimena jaso behar luke. Hala ere, aldaketa ez da obretan egiten den itxituren parekoa. Nire iritziz, eguzkitako hau ipini aurretik jakin egin beharko luke komunitateak, denen intereseko gai orokorra izanik erabaki bat hartzeko.</p> <p>Ondorioa: Eguzkitakoaren tamaina handia denez eta hau ipintzeko fatxaduan ainguralekua egin dutenez, gomendagarria litzateke komunitatearen akordioa edo baimena ezinegon edo haserrea saihesteko eta hainbat jabe esekitokiak erabiltzeko traba izan ez dezaten.</p> <p> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Lucia**, 11 urte bete dituzulako. Egun zoragarria pasa dezazula. Familiako guztien partez.



Zorionak, **Mikel!** Ondo pasa zure urtebetetzean.



Zorionak, **Iñigo**, 7 urte bete dituzulako. Asko maite zaitugu! Etxekoan partez.



Zorionak, **Malen**, bihar 4 urtetxo egingo dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familikoan, eta bereziki, ahizpa Naroaren partez.



Zorionak, **amatxo!** Ondo pasa eguna! Familiakoan eta lagunuen partez. Beti pozik, beti alai!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

LAGUNAK
estabimena testit hagar

6 hilabete
interesik gabe
atseden hartzeko
produktuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textilagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

QE55Q80AATXXC SAMSUNG TELEBISTA

799 €

- 55"
- SMART TV
- HDR 10+
- WIFI
- 4 HDMI
- 2 USB
- QLED 4K prozesadorea ia duena
- QUANTUM DOT
- QLED teknologia

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarrian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aito Agirre Kulturaganez, J. J. ezk. - 201870 ELGOIBAR

27 BARIKUA

19:00 Hitzaldia: 'Osasuna eta elektromagnetismoa 5G teknologiaren garaian'. Asier Arregi ingeniariak eskainiko du, Mendaroko frontoian.

19:00 Enkartelada: 'Ibilian ibilian'. Izan Bidea egitasmoaren barruan, Mendaroko plazan.

19:30 Euskal Dantzako bakarlarrien erakustaldia. Kalegoen plazan (euria bada, Maalako parkean).

20:00 Anfibiaok ikusteko irteera. IMH-ko aparkalekuan batuko dira. Ander Izagirre Aranzadiko kideak gidatuko du saioa.

20:30 Antzerkia: 'Zinemakopa'. Taupada Antzerki taldeak taularatuko du. Euskaraz, Herriko Antzokian.

28 ZAPATUA

9:45 Kirol Eguna, Mendaron. LHkoak, Herriko Enparantzan. HHkoak 10:15ean batuko dira Etxeberri plazan.

Azken zapatuko feria

9:00 Baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Umeentzako tailerrak: ortua etxean. Atxutxiamaikaren eskutik Kalebarren plazan.

11:00 Txosna. Atabal Elkarteak kudeatuta

Erraldoien topaketa

10:00 Diana, Mauxitxa txarangarekin.

12:00 Erraldoien erakusketa, Kalegoen plazan.

12:00etatik aurrera

Kale animazioa Elgoibarko, Arrasateko eta Bilboko dultzaineroekin eta Mauxitxa txarangarekin.

17:30 Erraldoien kalejira.

30 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: "Ezetx esaten ikasi". Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Lilan.

19:00 'Epeletan' literatura tailerra: Iñigo Aranbarriren 'Munduko tokirik ederrena' liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

31 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Edward Bunkerren 'Perro come perro' liburua landuko dute. Haizeak antolatuta, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

1 EGUAZTENA

17:00 Hitzaldia: 'Etxean argia nola aurreztu'. Kontsumobidek, Jubilatuan Biltokiak eta Udalak antolatuta, Jubilatuen Biltokian.

3 BARIKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean.

18:30 Egur arte tailerrekoen lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 18ra arte.

19:00 Musika Eskolako ikasleen kurtso amaierako kontzertua. Herriko Antzokian.



Zinea

'En su punto'

28 zapatua:

19:00/22:15

29 domeka: 19:00

30 astelehena: 21:00

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

27 BARIKUA Egunez Arriola Iluntzean Arriola	28 ZAPATUA Egunez ■ Fernandez ■ Garitaonandia Iluntzean ---	29 DOMEKA Egunez ■ Fernandez Iluntzean ---	30 ASTELEHENA Egunez Yudego Iluntzean Yudego
31 MARTITZENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Barrenetxea	1 EGUAZTENA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea	2 EGUENA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Garitaonandia	3 BARIKUA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia
■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384	Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendiñeta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106

Eta, Debabarrenean zer?

EUSKAL JAIA. MAIATZAREN 28AN, EIBARREN.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, Euskal Jaia ospatzeko.

- ✓ 10:00 - 12:00 Pala txapelketako finala, Astelena frontoian.
- ✓ 10:00 - 14:00 Artisau eta baserritarren azoka, herri kirolak eta bertsolariak, talpostua AEKren eskutik. Toribio Etxeberria kalean.
- ✓ 19:00 Trikipoteoa eta kale animazioa
- ✓ 20:00 KITTU musika taldea.
- ✓ 21:30 Kantu afaria: KITTU musika taldearen abestiak eta erromeria Jainaga eta Narbaizarekin Untzagako karpan.



Raul Gil Osoro

2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Hain sendo maite izan gintuzun
eta hain ona izan zinen gurekin
zure maitasuna gure ariman
iltzatuta geldituko dela betiko, aita.
Maite zaitugu.**


Etxekoak



**Auritz
Iriarte
Aranzadi**

5 urte, Elgoibar

"Pirata, altxorren bila"



**Sare
Iriarte
Aranzadi**

5 urte, Elgoibar

"Olagarroa"





Kontxi Irusta Urbieta

2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure indarrak gidatuko dizkigu egunak,
zure memoriak argituko ditu gure gauak.***

Etxekoak



Kontxi Irusta Urbieta

2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 87 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Zure ilobak




Flora Oñederra Uria

2022ko maiatzaren 23an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Nahiz eta bihotza geldirik izan
eta begiak itxirik,
guretzako beti
iraungo duzu bizirik.***

Etxekoak





Gizarte politikak Gipuzkoan

MAITE PEÑA

Gizarte politiketako diputatua

ELGOIBAR

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
Ekainaren 2an, 18:30ean
